



[Denda](#) [Harpidetza](#) [egin](#) [Publizitatea](#) [Kontaktua](#) [Gunea](#)

[Hasiera](#) > [Elkarrizketak](#) > **Askagintza: "bizirik bizi menpekotasunik gabe"**

1988-05-22 -- 1199.zenb

testua

## Askagintza: "bizirik bizi menpekotasunik gabe"

### Iñaki Goitioltza

Askagintza (Maribi Lazkano, Txus Kongil eta Kepa San Pedro)rekin elkarrizketan.  
2lean manifestapenak lau hiriburuetan drogaren aurka  
Askagintza: "bizirik bizi menpekotasunik gabe"

**Iragan 7an osatu zen Etxarri Aranazen Askagintza, drogomenpekotasunaren kontrako erakunde herritarra. Gipuzkoa, Biskaian eta beste herrialdeetan aritzen ziren taldeak bilduz aurrera doa erakunde berria, Euskal Herri osora hedotzeko asmoz; Prebentziaa, trafikoaren aurkako borroka, eta gizarteak ezarritako baldintza sozial zapaltzaileen kontrako iharduna dira Askagintzaren hari nagusiak. Gaurkoan erakunde berriko hiru partaiderekin izan gara hizketan, Maribi Lazkano, Txus Kongil eta Kepa San Pedrarekin.**

**GALDERA: Joan den larunbatean izan zen Askagintzaren lehen bilera..**

ASKAGINTZA: 1980an hasi ginen bileratan Donostian eta Bilbon, eta poliki poliki sortu ziren erakunde herrikoiak. 1983an Gipuzkoako DEEn etena gertatu zen, eta hortik sortu zen Askagintza. Sasoi berean gutti gora behera hasi zen lanean Dzarraska Bizkaian. 1985ean bilerak izan genituen elkarren artean sortzeko erakunde herrikoia Euskal Herri mailan. Aurtengo otsailan ezarri genituen akordio batzu, eta ordurako sartuta zeuden batasun prozesuan Nafarroa eta Arabako talde batzu ere.

**GALDERA: Zein dira tresnak Euskal Herri osoan funtzionatu nahi duen erakunde horrek efektibotasuna lor dezan?**

ASKAGINTZA: Erakunde bezala joko dugu drogomenpekotasunaren aurka, ez drogaren aurka. Euskal Herriak, eta beste edozein herri beti erabili izan ditu drogak era orekatsu batez. Droga berrieketa droga zaharrek erabilera berriekin digute ondorio oso txarrak. Guretzat oso garrantzitsua da jakitea zertarako eskaintzen diguten droga, eta zergatik behar dugun droga jaietan ondo pasatzeko, edo zergatik buruko mina dugunean berehala hartzen ditugun aspirinak. Hor daude interes politiko eta ekonomiko nabarmenak. Gure borroka joango da zioak errotik moztera, ondorioak apurka apurka desager daitezten.

Arazoa herriarena da, eta herriak berak hartu behar du protagonismoa drogomenpekotasunaren aurkako bidea irekitzeko.

Arazoa ezin daiteke utzi erakunde publiko eta medikuen eskuetan soilik, eta are guttiago epaile, abokatu eta lege penalisten eskuetan. Herriak berak hartu behar du kontzientzia.

### **GALDERA. Erabilpen kolektibotik ihelbide indibidualerako urratea eman da...**

ASKAGINTZA: Drogak gizarte kapitalista orduko izan zuen erabiltzeko balioa, eta orain ordea trukebalioa du; ateratzen zaio errentagarritasun ekonomiko eta politikoa. Droga orain erabiltzen da indibidualki eta neurgabeki jai eta asteburuetan. Gizarte honetan ohiturak ere aldatzen ari dira, alkohola droga zaharra da, eta segun ze zibilizaziotan cannabisa ere zaharra da, eta coca ere, baina gu kezkatzen gaituztenak dira forma berriak, alkohola eta abarren erabilpena.

Droga modernoak bortizkeriaren tresna bilakatu dira. Euskal Herrian badira gizarte mailako kontraesanak, eta drogak protesta hori estaltzeko erabiltzen dira, protesta horren kontrako erantzuna dira. Hor sartzen da trafikoaren sustapena, sistemak erabiltzen bait du borroka hori suntsitzeko. Drogak ez dira harremanetarako ritoa edo liturgia bakarrik, sistemak askapen mugimendua apurtzeko erabiltzen dituen tresna gogor batzu baizik.

### **GALDERA: Zentzu horretan kontsidera daiteke drogak baduela atal errepresiboa?**

ASKAGINTZA: Begira, drogaren kontra jotzen dutenean, aldi berean zabaltzen dituzte gizartean balio kontserbadoreenak, moral atzerakoiena; batzu polizia efikaza eskatzen dute 'pakea' lortzeko. Honela polizia bilakatzen da zeharkako hartzekoduna, ikusi baino ez dago nola funtzionatu izan den informazioa, 'Operación loro' horretan.

Bestalde, lortzen dutena da sektore marjinal batzu penalizatzea, erabiltzen dituzte drogak disidentzia soziala zapaltzeko. Sistema honekin ados ez dauden guztiak ez dute bi bide baino: edo borrokan sartzea edo drogatzea. Drogetarako ere badira forma desberdinak; batzu erabiltzen dute kokaina, eta hori zelofan politez estalita, hori da 'alternatiboa', 'progresista'... Yuppientzat oso inportantea da ondo egotea, ondo zaintzea, koka hartzea ondo sentitzeko eta abar. Beste sektoreentzako, ordea 'pasa, 'resiste y sobrevive' eta antzekoak zabaltzen dira.

Droga erabiltzen da ihes egiteko, baina menpekotasunean erortzen denaren gain legearen indarra erortzen da. Nahiz eta trafikoa gaitzetsia egon ikusten dena da zigortuak, azkenean, kontsumitzaileak direla.

### **GALDERA: Ospetsua egin da El Naniren kasua. Horretan oso nahasian agertzen dira droga, tortura, heriotza eta polizia...**

ASKAGINTZA: Polizia autonomo batek oso argi esan zigun, leku batzutan bakarrik daude putak, lapurrak eta poliziak. Sektore marjinalak, bere kontzientzia faltagatik, erabiltzen dituzte haien helburuetarako. Irunen harrapatu duten alijo horretan ere aduanetako agente bat ere sartuta zegoen. Guk esaten dugunean drogaren munduan sistima osoa dagoela sartuta esan nahi duguna da sistima finkatzen duten pertsonak daudela, era guztietakoak, polizietatik hasita mediku eta politikoetaraino.

### **>GALDERA: Beraz, trafikoa eta kontsumoa berezitu beharko genuke, ezta?**

ASKAGINTZA: Prebentzio lana egin behar dugu, eta baita eskaintzaren kontrakoa ere, eta biak oso lotuta, baina azken baten gure helburua da demanda ezabatzea prebentzio lana eginez. Nahi duguna da Euskal Herrian drogak egon arren menpekotasunik ez egotea. Prebentzio lana egin behar dugu eskoletan, familietan eta komunitatean, sektore guztiak inplikaturik zioen aurka Euskal Herri librea lortzeko.

Sarritan ikusten dugu etxean umeei esaten dieguna gauza bat dela eta gero egiten duguna bestelakoa, eta honek ekartzen du sinesgarritasun eza. Bestalde, instituzioetatik datozen neurri gehienak ondorioen kontra zuzentzen dira, arazoak badaude jentea lasaltu nahi dute eta horretarako gehiago kontrolatu, bestalde eritasunen kontra dago medizina, baina inor ez da sartzen zioen kontra. Drogomenpekotasunaren atzean desigualdada dago, arazo sozialak, langabezia, txirotasuna... gizarte honetan ez gaude gustora. Gustora ez gaudenean hiru aukera geratzen zaigu: pasatu eta superbizi, pasatzea eta pasibo egon ordez automarjinatu, eta hirugarrena da borrokatzea egoera aldatzeko. Iraultza txikiak egin ditzakegu egunero, etxean, eskolan eta kalean ere. Eikarrizketa gehiago etxean, ikasleari protagonismoa emanaz eskolan eta ez irakasleari eta ministeritzari, kalean berdintasun handiago eta konpetibotasun txikiago, kultura kritikoa eta sortzailea... horrela goaz sustraletara...

### **GALDERA: Sartuta gaude Udaberria 88 deituriko kanpainen.**

ASKAGINTZA: Gure lema da bizirik bizi menpekotasunik gabe, eta droga menpetasunaren sustapen edo trafikoaren aurka. Mezu positiboa aldarrikatu nahi dugu, herriak parte eragileak har dezan trafikoaren aurka presio sozial indartsua eginez.

21an manifestapenak egin nahi ditugu hegoaldeko lau hiriburuetan, baina honetaz gain herri eta auzoetan ekitaldi franko eratu da. Hitzaldiak, bideoak, jokoak... erabili izan ditugu. Mugimenduaren funtsak ere argitaratu berri ditugu manifesto batetan.

INAKI GOITIOLTZA

Askagintzako Txus Kongil Maribi Lazkano eta Kepa San Pedro. Drogomenpekotasunaren aurka jo behar dela diote, ez drogaren aurka.

36-37

Gaiez\Gizartea\Droga\Narkotrafik  
Gaiez\Politika\Euskal Herr\Taldeak\Besteak\Askagintza  
Pertsonaiaz\LAZKANO3  
Pertsonaiaz\CONGIL1  
Pertsonaiaz\SAN PEDRO1  
Egileez\GOITIOLTZA1\Gizartea

---

## ***Erantzunak***

Erantzunik ez dago.

Izartxoaz (\*) markaturiko datuak derrigorrez bete beharrekoak dira.

### ***Albiste honi erantzun***

Izena\*:

e-posta\*:



Idatzi segurtasun kodea: